Azpeitiko Udala

**AZPEITIKO UDALA**

**Azpeitian parke fotovoltaiko bat ezartzeko Plan Bereziaren behin betiko onarpena**

Udalbatzak, 2022ko irailaren 22an egindako bilkuran, eguzki-instalazio fotovoltaiko bat ezartzeko Plan Berezia behin betiko onartzea erabaki du, 2022ko uztaileko dokumentuaren arabera eta ondoren adierazten diren baldintzetan:

Dokumentuaren xedea da Urrestilla inguruan 12.681 m2-ko azalera duen hirigintza-eremu bat mugatzea eta antolatzea, eguzki-instalazio fotovoltaiko bat ezarri ahal izateko, 1,2 MW-ko sortze-helburuarekin. Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkarteak sustatu du parkea, Azpeitiko Udalak, Krean S. Coop. sozietateak eta Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) osatua, eta helburua 0 Km-ko energia-komunitate kooperatibo bat sortzea da.

Lurzatiak Ibaieder ibaiarekin egiten du muga iparraldean, GI-2635 errepidearekin hegoaldean eta lurzati pribatuarekin, GI-2635 errepidearekin mendebaldean eta Ibaieder ibaiarekin eta lurzati pribatuarekin ekialdean. Erregistroko finka bakar baten gainean ezarriko da, hesitutako esparru baten barruan, eta hegoaldeko muturrean dagoen Gl-2635 errepidetik sartuko da bertara, lursaila haren kotan baitago. Plan Bereziak eremuaren antolamendu xehatua definitzen du, eta aurreikusitako plaka fotovoltaikoen kokapena ezartzen du, bai eta transformazio-zentroari eta instalazioari lotutako inbertitzaileei dagokiena ere.

Alkatetzaren 2021eko ekainaren 24ko Dekretuaren bidez, hasierako onarpena eman zitzaion, 2021eko ekainaren 1eko dokumentuaren baldintzekin. Jendaurreko erakustaldian ez da alegaziorik aurkeztuko.

**AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA.**

**Aprobación definitiva del Plan Especial para la implantación de un parque fotovoltaico en Azpeitia**

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 22 de septiembre de 2022 ha acordado aprobar con carácter definitivo el Plan Especial para la implantación de una instalación solar fotovoltaica, según documento de fecha julio 2022 y en los términos que se exponen a continuación:

El objeto del documento es delimitar y ordenar un ámbito urbanístico situado en el entorno de Urrestilla con una superficie de 12.681 m² para posibilitar la implantación de una instalación solar fotovoltaica, con un objetivo de generación de 1,2 MW. El parque está promovido por Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkartea, formada por el Ayuntamiento de Azpeitia, Krean S.Coop. y el Ente Vasco de la Energía (EVE), y su objetivo es generar una comunidad energética cooperativa de Km 0.

La parcela limita al norte con el río Ibaieder, al sur con la carretera GI-2635 y parcela privada, al oeste con la carretera GI-2635 y al este con el río Ibaieder y parcela privada. La implantación se realizará sobre una única finca registral, dentro de un recinto vallado al que se accederá por la carretera Gl-2635 en el extremo sur, donde el terreno está a cota de ésta. El Plan Especial define la ordenación pormenorizada del ámbito, estableciendo tanto la disposición de las placas fotovoltaicas previstas, como la correspondiente al centro de transformación y a los inversores vinculados a la instalación.

Por Decreto de Alcaldía de 24 de junio de 2021, se procedió a su aprobación inicial con condiciones del documento de fecha 1 de junio de 2021, sin que se presentarán alegaciones en el periodo de información pública.

Proposamenak eragindako administrazio sektorialen esku utzi zen dokumentua. Espedientea izapidetu bitartean, beharrezko txosten sektorialak bildu dira.

El documento fue puesto a disposición de las Administración sectoriales afectados por la propuesta. Durante la tramitación del expediente se han recabado los informes sectoriales necesarios.

2021eko irailaren 2an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ingurumen-txosten estrategikoa egin zuen, eta bertan adierazi zuen plana ez zegoela ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren mende, ingurumenean ondorio esanguratsurik eragiten ez zuelako, eta dokumentuan sartu beharreko ingurumen-integrazioko zenbait neurri adierazi zituen.

Con fecha 2 de septiembre de 2021 la Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular emitió el informe ambiental estratégico señalando que el plan no estaba sometido a evaluación ambiental estratégica ordinaria por no suponer efectos significativos sobre el medio ambiente, e indicando una serie de medidas de integración ambiental que debían incorporarse al documento.

Ebazpen hori 2021eko urriaren 8ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen.

Dicha resolución se publico en el Boletín Oficial del País Vasco de fecha 8 de octubre de 2021.

Ingurumen-arloan emandako txostenaren edukia eta hasierako onespenaren erabakian ezarritako baldintzak kontuan hartuta, Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkarteak 2021eko azaroko dokumentua aurkeztu zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari (EAEEB) bidaltzeko.

Considerando el contenido del informe emitido en materia ambiental así como las condiciones establecidas en el acuerdo de aprobación inicial, por Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkartea se presento documento de fecha noviembre 2021 para su remisión a la Comisión para la Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco (COTPV).

2022ko otsailaren 17an, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen Gipuzkoako Hirigintza Plangintzako Atalak 2022ko otsailaren 9an egindako 1/2022 Bilkuran hartutako erabakiaren ziurtagiria jaso zen Udalean. Erabaki horren bidez, izapidetzen ari zen Plan Bereziaren aldeko txostena eman zen. Nekazaritzaren arloan eskumena duen foru-organoak txostena egiteko beharra ezartzen da, eta txosten horretan planteatutako jarduketaren eragina baloratuko da.

Con fecha 17 de febrero de 2022, se recibió en el Ayuntamiento la certificación del acuerdo adoptado en la Sesión 1/2022 de la Sección de Planeamiento Urbanístico de Gipuzkoa de la Comisión de Ordenación del Territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, celebrada el día 9 de febrero de 2022, por el que se informaba favorablemente al Plan Especial en tramitación. Se establece la necesidad de emisión de informe por parte del órgano foral competente en materia agraria, en el que se valore la repercusión de la actuación planteada.

Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkarteak 2022ko uztaileko hirigintza-dokumentua

Por Azpeitiko Ekindar Kooperatiba Elkartea se ha presentado para su aprobación definitiva el

aurkeztu du, behin betiko onar dadin. Dokumentu horretan, espedientea izapidetzean sektoreko administrazioek adierazitako alderdi guztiak jasotzen dira, baita PEAS dokumentua ere (nekazaritzako afektazioaren ebaluazio protokoa).

documento urbanístico de fecha julio 2022 que recoge todos los aspectos señalados por las distintas administraciones sectoriales durante la tramitación del expediente, incluyendo el documento PEAS (protocolo de afección sectorial agraria).

Prozedura hori Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Antolamenduko Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko abuztuaren 3ko Ebazpenarekin amaitzen da. Ebazpen horretan interes publikokotzat jo da, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, Azpeitian eguzki-instalazio fotovoltaiko bat ezartzeko Plan Bereziak ahalbidetzen duen jarduketa. Bertan ezetsi egiten da Olatz Mercaderrek Xabier Urbistondo Arteche eta Jon Urbistondo Artecheren izenean eta ordezkaritzan aurkeztutako alegazioa.

Dicho procedimiento culmina con la Resolución de la Dirección General de Ordenación del Territorio de la Diputación Foral de Gipuzkoa de fecha 3 de agosto de 2022 en el que se declará de interés público, a los efectos de los dispuesto en el artículo 28.5.a) de la Ley 2/2006 de 30 de junio, de Suelo y urbanismo, la actuación que posibilita el Plan Especial para la implantación de una instalación solar fotovoltaica en Azpeitia. En la misma se desestima la alegación presentada por Olatz Mercader en nombre y representación de Xabier Urbistondo Arteche y Jon Urbistondo Arteche.

Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu da 2022ko abuztuaren 16an.

Esta resolución se ha publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 16 de agosto de 2022.

Dokumentua behin betiko onartzeko, kontuan hartu behar dira Hirigintza eta Idazkaritza sailek egindako txostenak.

De cara a la aprobación definitiva del documento hay que tener en cuenta los informes emitidos por los departamentos municipales de Urbanismo y Secretaría.

Jasota dago proiektu eta hirigintza-planen arloko hizkuntza-inpaktuaren ebaluazio-batzordearen txostena, 2021eko azaroaren 22koa.

Consta el informe de la Comisión de evaluación de impacto lingüístico en materia de proyectos y planes urbanísticos de fecha 22 de noviembre de 2021.

Halaber, genero-eraginaren ebaluazioa egin da, Berdintasun Sailak 2021eko uztailaren 26an egindako egiaztapen-txostenaren bidez.

Asimismo, se ha procedido a realizar la evaluación de impacto de género mediante informe de verificación del Departamento de Igualdad de fecha 26 de julio de 2021.

Esku artean dugun Plan Berezia behin betiko onartzeak berekin dakar era guztietako onarpenak, baimenak eta lizentziak emateko etenaldia bertan behera uztea, Planean aurreikusitako zehaztapen berriek orain arte indarrean egon den hirigintza-araubidea

La aprobación definitiva del Plan Especial que nos ocupa conlleva al levantamiento de la suspensión en el otorgamiento de toda clase de aprobaciones, autorizaciones y licencias en el ámbito en la que las nuevas determinaciones previstas por el Plan supongan modificación

aldatzea dakarten eremuan.

Bestalde, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.3 artikuluak xedatzen duenez, behin betiko onespenaren xede den Plan Berezia Gipuzkoako Foru Aldundiko Hirigintza Plangintzaren Administrazio Erregistrora bidali da gordailatzeko.

Beraz, Plan Berezia behin betiko onartu ondoren, indarrean sartzeari begira, aipatutako 2/2006 Legearen 89. artikuluan azaldutakoaren arabera, bidezkoa da behin betiko onartzeko erabaki honetaz gain, hirigintzako arauak eta antolamenduko planoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea. Behin betiko onarpenaren erabakia lurralde historikoan zabalkunde handiena duen egunkarian edo egunkarietan ere argitaratuko da.

Plan Bereziaren dokumentuaren edukia Azpeitiko Udalaren web orriko Hirigintza atalean egongo da ikusgai: www.azpeitia.eus

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari. Bere aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, Bilbon, bi hilabeteko epean, erabakia azken aldiz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Azpeitian, 2022ko irailaren 23an.- Alkateak.- Nagore Alkorta Elorza.

Azpeitiko Udala
ALKATETZA

del régimen urbanístico hasta ahora vigente.

Por su parte, según dispone el artículo 89.3 de la Ley 2/2006 de 30 de junio de Suelo y Urbanismo, el Plan Especial objeto de aprobación definitiva ha sido remitido para su depósito al Registro administrativo de planeamiento urbanístico de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Aprobado por tanto definitivamente el Plan Especial, a efectos de su entrada en vigor, a tenor de lo expuesto en el artículo 89 de la mencionada Ley 2/2006 procede publicar además del presente acuerdo de aprobación definitiva, las normas urbanísticas y planos de ordenación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. El acuerdo de aprobación definitiva se publicará asimismo en el diario o diarios de mayor difusión del territorio histórico.

El contenido del documento del Plan Especial estará expuesto en la sección de Urbanismo de la página Web del Ayuntamiento de Azpeitia www.azpeitia.eus.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo interponerse contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en Bilbao, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su última publicación.

En Azpeitia, a 23 de septiembre de 2022.-La Alcaldesa.- Nagore Alkorta Elorza.